

getxoBerri



Getxo
bizi ezazu



#GetxoBiziEzazu

Doako alea

1485 zb.
www.getxo.eus

Urtarrila 18
>> Urtarrila 28

2018

/ Nabarmenezkoak

- > 36.800€ 200 bat eskola-orduz kanpoko jardueratarako (2. or.)
- > Cloverwind taldeak Neguko Bidaia zikloa inauguratuko du (3. or.)
- > 3D inprimaketa tailerrak Kirola eta Ongizatearen eremuan (4. or.)

Natalia Mongek "Artez Blai" Arte Eszenikoen Nazioarteko X. Ikerketa Saria irabazi du (3. or.)



Liburu aurkezpena. Ostiralean, hilak 26, 19:00etan, Algortako Kultur Etxean, Marie Laure Rodríguezen "Falsos mitos de la mujer en el Islam" liburuaren aurkezpena, idazlearekin.

Haur antzerkia. Igandean, hilak 28, 18:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Alizia lurralde miresgarrian", Glu Gluren eskutik. Euskaraz. 5€.

A-
GENDA

Punta Begoña Galerietara 360°ko bisita birtuala

Punta Begoña Galerietako web orrialdean (www.puntabegonagetxo.eus) dagoeneko aplikazio bat ezarri da Getxoko monumentu-multzo horretan barrera ibilbide birtual bat egin ahal izateko. Funtzio berria, batez ere, galeriak bertatik bertara bisitatzea ez duten pertsonentzat dago pentsatuta. Bisitaldian zehar, Punta Begoñako hainbat toki eta gelatan barrera ibil daitezke: sarre- ra, areto nagusia, goiko lorategiak eta hego- eta ipar-mendebaldeko galeriak. Helburua da galerien egungo egoera ezagutaraztea, horietan sartzeko beharrik izan gabe. Asmo horrekin lan handia egin dute Udalak eta EHU/UPVk, eraikin osoa eskaneatu eta irudi horiek aplikazio berriaren bitartez eskaini ahal izateko. Eskanerretik pasatzeko Google Maps sistema erabili dute eta aplikazioa ere modu berdintsuan dabil. Erreza da erabiltzeko eta oso intuitiboa. Hartara, aurrera pausu berri bat da Punta Begoña nabarmenezko gauzatzaren ari den proiektua irudikatzen; eta, horrenbestez, bisita birtuala webguneko gainontzeko edukietara bildu da, galeriak eraiki aurretik Punta Begoña nolakoa zen jakiteko. Proiektuari, bere ardatzei eta orain arte egindako lanei buruzko informazioa dauka webgunek; baita argazki eta planoz osaturiko artxibo bat, arian arian aberastuz doana, eta proiektua aurkezteko eta testuinguruan jartzeko bideoak, besteak beste.



Portu Zaharrea irisgarritasuna hobetzeko lanak abiatu dira

Algortako Portu Zaharrea irisgarritasuna baliabide mekanikoz hobetzeko lanak abiatu dira. Proiektu horretan sartuta dagoen igogailua jarriko den ezpondaren inguruan dagoen ilarako aparkalekua kendu da eta Jeneratxu eta Usategi arteko bidexka itxi da. Oinezkoentzako ibilbide natural ederra bihurtuko da pasealeku hori. Lanak 514.504€gatik adjudikatu dira, horiek amaitzeko epea bost hilabetekoa da (horregatik uste da udaren hasierarako amaituta egon daitezkeela) eta 2017ko aurrekontu parte-hartzaileetan sartuta daude. Igogailua Ribera kalea eta Portu Zaharreko amaieran dagoen lur gaine-

ko aparkalekuaren artean dagoen tutuan kokatuko da, antzinan auzoko bizilagunek zarama botatzeko erabiltzen zutena. 15 bat metroko altuera duen desnibela gaindituko du eta era batera 16 lagun sartu ahalko dira bidaia bakoitzean; dohainik izango da eta kokatuko den ingurune babestuekin errespetutsua izango da. Halaber, behealdean, zelaigunean, espaloia bat eraikiko da, egun eskalinaraino iristen denarekin lotuko dena; hau da, 55 metro luzerako espaloia izango da, argi berriak izango ditu, baita bankuren bat ere ontziratzegune ondoan. Horrez gainera, lau aparkale-

ku berri jarriko dira, mugikortasun urriko pertsonentzat. Usategi arteko oinezkoen bide berriak 210 metroko luzera, zabalera aldakorra (beti ere 1,5 metrokoa edo handiagoa) eta, zoladura naturalizatu bati esker, bidexkaren irudiari eutsiko dion zoru egonkortu bat edukiko ditu. Bidearen alboak egur listoiekin errematatuko dira. Argiztapena indartuko da eta lanek ukitutako gunek berriz urbanizatu eta landatuko dira.

Informazio gehiago:

<http://www.getxo.eus/eu/urbanismo/proyectos/ejemplo-proyecto-urbanismo-7>

Espainiako Txirrindulari Itzuliko Bizkaiko etapa Getxotik irtengo da irailaren 12an

Bizkaiko ahaldu nagusiak, Unai Rementeriak, Espainiako Txirrindulari Itzuliko zuzendariak, Javier Guillének, Getxoko alkatea den Imanol Landarekin batera, lasterketa horren aurtengo Bizkaiko etapa aurkeztu zuten astelehenean Bilbon. Munduko txirrindulari lasterketa garrantzitsuenetako bat da Itzulia. Bizkaiko etapa, probako 17garrena, irailaren 12an jokatu da; 166 km-ko ibilbidea izango du, Getxoko itsas-bidaien terminaletik aterako da eta Bizkaiko Balgoian amaituko da.



Alkateak nabarmendu zuenez, "albiste ezin hobea da etaparena Bizkai osoarentzat eta Getxorentzat; non txirrindularitza grinaz bizi eta haren alde apustua egiten den, Punta Galea Tx.E.-k egiten duen oinarritzko lanari eta bere Getxoko Zirkuituari esker, gure herrialdean txapelketa ziklisten erreferente dena". Landak azpimarratu zuen "gertakari honek kanpoko proiektio handia ekarriko du, posta-txartel onena eta ederrena helaraziz, Euskadin itsas-bidaiak sartzeko atetik bertatik; izan ere, etapak gure apustua indartuko du, turismoaren bidez aberastasuna sortzearen aldekoa".



URTARRILAK 18 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Villamonteko haur liburategian "Cuentos diminutos" (gaztelaniaz; 3-5 urte), Anabel Murorekin.

Literatura solasaldia. 2018ko denboraldiaren hasiera. 19:45ean, Algortako Kasinoan, Lara Morenoren "Piel de lobo" liburuari buruzko solasaldia. Antolatzailea: Kultur Etxearen sortze-idazketa tailerra.

Getxo zuzenean. Silver Tavern's Pub (Kirol Portua) tabernan, 20:00etan, El hombre que fue lunes taldea (indie). Sarrera dohainik.

Odol-ateratzea. Areetako Geltozia plazan. Goizez eta arratsaldez.

Gizatiar. Romo-Areetako giza-eta kultura-elkartea. Hitzaldia: "Teknologi aberrien eta sare sozialen abusuak dakartzen arriskuak". Hitzalaria: Maria Zalbidea. 18:15ean, Romoko San Jose elizako egoitzan. Sarrera dohainik.

URTARRILAK 19 OSTIRALA

Musika ikuskizuna. 18:00etan Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Goazen itsasora" itsas abesti eta kontakizunak. Euskaraz, 3 eta 9 urte bitarteko umeentzat. Sarrera dohainik.

Cinema Paradiso. Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, jatorrizko bertsoan azpidatziak, "Lady Macbeth" filmaren proiektzio eta foruma. Zuzendaria: William Oldroyd. Ingelese. 16 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 2,90€.

Ate irekiak jardunaldia. Madre del Divino Pastor Ikastetxea, Gobela kalea 17. Bi txanda: 15:15ean eta 18:00etan.

URTARRILAK 20 LARUNBATA

Neguko Bidaia. Kontzertu didaktiko-musikalen zikloa. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Cloverwind taldearen emanaldia (folka). Sarrera: 5€ (eskolako ikasleentzat 3€). Abonamendua: 25€ (15€)

URTARRILAK 21 IGANDEA

Haur zinea. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Spark, una aventura espacial" filmaren proiektzioa. Gaztelaniaz. Adin guztientzat. Sarrera: 2,10€.

Mendi irteera. Belateko mendilerroa. Gorostieta-Putzueta-Belate ibilbidea. Antolatzailea: Etorkizuna Mendi Taldea. Informazioa: etorkizunamt@gmail.com edo 606 63 71 28 (whatsapp).

URTARRILAK 22 ASTELEHENA

Mugabarik. Norbanakoen trebatze eta garapenerako Elkarteak. Hitzaldia: "El ego y las sombras". Hitzalaria: Itziar Barrenengoa (psikologoa). 19:30ean, Villamonteko Kultur Etxean.

Emozio Adimenari buruzko tailerrak. Astelehenean, urtarrilak 22, otsailak 19, martxoak 12, apirilak 23 eta maiatzak 28, hurrengo gaiekin: "Integrar inteligencia, voluntad y corazón", "Control del estrés", "Comunicación eficaz", "Mediación y solución de conflictos" eta "Aprendiendo a quererme", hurrenez hurren. 15:15etik 16:15era, Aretxondo Kultur Elkartearen egoitzan (Basagoiti etorbidea, 75). Prezioa: 10€ saio bakoitzeko. Informazioa: 679 39 60 13.

URTARRILAK 24 ASTEAZKENA

AJANE. Irteera Balmaseda eta Sopuertara. Mendi-ibilbia. Antolatzailea: AJANE Algortako Nagusien Elkarteak. Izenematea astearte eta ostegunetan J.B. Zabalako egoitzan.

URTARRILAK 25 OSTEGUNA

Getxo zuzenean. Algortako Jolasurre tabernan, 20:00etan, Kaotic Lovers (rocka). Sarrera dohainik.

Gizatiar. Romo-Areetako giza-eta kultura-elkartea. Batzar orokorra, Romoko San Jose elizako egoitzan. 18:00etan, lehenengo deialdian, eta 18:30ean, bigarrenean. Botoa emateko bazkide txartela zuziluarekin eta eguneratuta ezinbestekoa izango da.

URTARRILAK 26 OSTIRALA

Liburu aurkezpena. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, Marie Laure Rodríguez "Falsos mitos de la mujer en el Islam" liburuarren aurkezpena, idazlearekin. Sarrera dohainik. Antolatzailea: Mujeres con Voz.

Zine-kluba. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "Frantz" filmaren proiektzio eta foruma. Zuzendaria: François Ozon. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 2,90€.

URTARRILAK 27 LARUNBATA

Neguko Bidaia. Kontzertu didaktiko-musikalen zikloa. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Malú Garay & Quartet taldearen emanaldia (Jazza). Sarrera: 5€ (eskolako ikasleentzat 3€).

URTARRILAK 28 IGANDEA

Haur antzerkia. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 18:00etan, "Alizia lurralde miresgarrian", Glu Gluren eskutik. Euskaraz. Familia osoarentzat. Sarrera: 5€.



36.800€ 200 bat eskola-orduz kanpoko jardueratarako

Udalak 36.800€ banatuko ditu euskara sustatzeko ikastetxeek eta guraso elkarteek antolatzen dituzten 200 bat eskola-orduz kanpoko jardueren artean. 26 entitatek ikastetxe publiko eta pribatuetan antolatutako ekitaldien helburua da txikienean artean euskararen erabilera sustatzea, hizkuntza jarduerak ludoagoarekiko lotura sustatzen, araututako eskola jarduerak osatzeko, eta aldi berean, gurasoen eta haurren arteko harremana euskaraz izatea sustatzea.

Diru-laguntzak mota anitzeko jarduerak aurrera eramateko dira, horien artean, gimnastika, arte, sexualitatea edo irristaketa tailerrak, irteerak, txangoak, kirol antzak edo euskal asteak. Diru-laguntzak banatzerakoan kontuan hartzen da: euskara modu integratuz bizitzera eramaten duten esperientziak, (adibidez gune euskaldunetan garatutako barnetegi eta txangoak, euskararen beste errealitate bat erakusten laguntzen dutelako); adiera-

zpena lantzen duten ekimenak edo euskararen erabilera aktiboa bilatzen dutenak (antzerkia, mintza tailerrak, berba eta berba izenekoak, berbodromoak), eta azkenik, gurasoekin euskararen esperientzia bizitzera eramaten dutenak. Aldi berean, garrantzia ematen zaio gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna kulturartekotasuna, harremanak eta bizikidetzak sustatzeari.

Diru-laguntzak

- El Divino Pastor ikastetxeko Guraso Elkarteak: 4.969,59€.
- Zabalako ikastetxeko Guraso Elkarteak: 3.450,08€.
- Zabala ikastetxea: 3.291,18€.
- San Nikolas ikastola: 3.184,89€.
- Sarri Gurasoen Elkarte Geroa Ikastola: 2.895,91€.
- Azkorriko Guraso Elkarteak: 2.496,21€.
- Romo ikastetxeko Gurasoen Elkarteak: 2.313,12€.
- Santísima Trinidad Guraso Elkarteak: 1.727,56€.

Aura Lolita Chávez, 2017ko Ignacio Ellacuria sariaren irabazlearen eskutik

Guatemalako herri indigenen defentsari buruzko solasaldia

Guatemalari buruzko solasaldia izango da Getxo Elkartegian, ostiralean, urtarrilak 19, Aura Lolita Chávez Ixcaquic, giza eskubideen defendatzaile eta 2017ko Ignacio Ellacuria sariaren irabazlearen eskutik. 12:00etan hasiko den ekitaldia Ibaiondo Ikasketa Zentroak antolatu du, Udalaren laguntzarekin.

Aura Lolita Chávez Ixcaquic lurraldean meategi, egur, hidroelektriko eta nekazale-industriako esparruen hedatzearen aurrean giza eskubideak eta natur baliabideak babesteko borrokatzen ari den CPK Ki'che' Herrien Batzarreko kidea da. Solasaldian Aura Lolita Chávezek azalduko du meategiko enpresen eta enpresa transna-



zionalen kontra egiten ari diren lana eta baita herri indigenen alde aurrera eramaten ari direna ere. Hori dela eta, emakume horrek mehatxu ugari jasan ditu eta horregatik, Guatemalatik alde egin behar izan du.

Lolita Chávezek datorren urtarriaren 29an jasoko du 2017ko Ignacio Ellacuria saria, Eusko Jaurlaritzak emanda, eta Europako Parlamentuak ematen duen Sajarov sariaren 2017ko finalista ere izan da.



Elkartasun txeke eta saskia eman dute

Algortako Ostalarien Elkarteak 2.237€ko txekia eman dio *Itsas Salbamendu Humanitarioa* GKEri. Diru hori Gabonetan bildu zuten txartelak saltzen 2.500€ko elkartasun saskia zozketatzeko. Horren irabazlea Gorka Izquierdo Gallardo izan da eta berak txartela Salem tabernan erosi zuen.

- Txatxalin Gobelako Gurasoen Elkarteak: 1.670,93€.
- Azkorri ikastetxea: 1.294,93€.
- Julio Caro Baroja ikastetxea: 1.278,99€.
- APYMA Gurasoen Elkarteak Andra Mari ikastetxea: 1.080,64€.
- Zubilletakoak Gurasoen Elkarteak: 945,49€.
- San Ignazio Guraso Elkarteak: 753,98€.
- Larrañazubi ikastetxeko Guraso Elkarteak: 724,74€.
- Julio Caro Baroja Guraso Elkarteak: 710,64€.
- Aixerrota institutua: 591,11€.
- San Inazio ikastetxea: 581,7€.
- Gobela ikastola: 501,27€.
- Zubilleta ikastetxea: 454,7€.
- Andra Mari ikastetxea: 420,12€.
- Artaza-Romo ikastetxea: 409,23€.
- Larrañazubi ikastetxea: 371,26€.
- Madre del Divino Pastor ikastetxea: 272,82€.
- Romo ikastetxea: 227,35€.
- Artaza-Romo Guraso Elkarteak: 181,51€.

BERRILABURRAK

* Zuhaitz mozketa Santa Clara, segurtasunagatik.

Udalak Santa Clara udal eraikineko berdegunean dauden 5 eukalipto, 30m inguruak, ebakitzeko lanak hasi ditu, segurtasunagatik. Izan ere, txosten tekniko baten arabera, bi motatako ondoko eraginez kaltetuta daude: enborra bamehuts geratzen zaie eta zuhaitzaren oinako kanpoko egurra usteltzen da. Lanak 2 bat astez luzatuko dira eta ondorioz Santa Clara barruko aparkalekuan ezin da aparkatu, ez eta Arkotxa kaleko ezkerrean ere. Zirkulazioan ere mozketak izango dira, seinaleen bitartez behar bezala iragarriko direnak.

* Jarduerak Ingurumen Aretan.

Hile honetan bi dira nabarmentzekoak: gymkana bat familiarentzat, autogidatua, Bolueko Hezegunean barrena larunbat honetan, hilak 20, eta neguan altxorren bila jolasa, jende guztientzat, hilaren 27 eta 28an. Halaber, igandean, hilak 21, tximeletak egiteko tailerra antolatu da umeentzat. Jarduera guztiak 10:00etatik 14:00etara egingo dira. Izenemateak dohainik. Tel.: 688 88 35 96.

* Portu Zaharreko grafitia atzeratu da, eguraldi txarra dela eta.

Ziztu Bizian eta Eskubeltz eskaut taldeek, Gaztelekukoekin batera, grafiti bat egiteko asmoa zuten asteburu honetan, Portu Zaharreko hormatzairean. Baina atzeratu egin da eguraldi txarra iragarri dutelako. Ekimenaren helburua da kulturartekotasun eta aniztasunari buruzko hausnarketarako espazioak sortzea.



- Lan bila nabil, orduka edo barenko gisa, etxeko lanak egin, garbiketara edo zaharrak jagoteko. Tel.: 699 16 06 92.

Norberaren iragarriak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazkotasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaurlaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Getxoberri Getxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-erantzuleen alibiteak eta informazioak ageritzen dira astero. Komunikazio zinegotzia: Amaia Agirre. Zuzendaria: Javier García. Erredaktoreburua: Itziar Aguayo. Erredakzioa: Nekane Ardanza,

Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel.: 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: geboxokoudalprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Flash Composition SL Inprimaketa: Editorial Iparraguirre S.A. Banaketa: Lantegi Batuak Fundazioaren egunOn zerbitzua Gordailu legala: BI-388-87



“La danza de las emociones de Alain Platel” izenburuko lanarekin Natalia Mongek “Artez Blai” Arte Eszenikoen Nazioarteko X. Ikerketa Saria irabazi du

Natalia Monge Gómez koreografo getxotarrak, ORGANIK Dantza-Antzerki konpainiaren sortzaileak, irabazi du *Artez Blai* Arte Eszenikoen Nazioarteko X. Ikerketa Saria. Epai-mahaiak saria eman dio “Alain Platel sortzaile belgiarraren lanaren gainean hausnarketa zehatza, estetiko eta soziala egiteagatik. Dokumentazioarekin eta hautemate zehatzekin irakurleengan interesa sortzen duen kontaketa bat lortu du, era egokian egituratuta dagoelako egilearen biografia eta bere teknika berritzaileak jarraitu ahal izateko”.

Saria da egindako lana *Artez Blai* euskal argitaletxearen *Teoría y Práctica* bilduman argitaratzea, honek ARTEZ Arte Eszenikoen aldizkaria eta www.artezblai.com egunkari digitala ere argitaratzen ditu.

Nataliarentzat sari hori irabazteak egiten duen ikerketa-lanari aitorpena egitea dakar. “Dudarik gabe”, dio, “lan hori elikatu da nire konpainian, ORGANIK Dantza-Antzerkian, an-

tzezte-sortzaile bezala egindako lanaz. Behin, arlo akademikoan, norbaitek esan zidan gehiago ikertu behar nuela, artikulugutxi nituela argitaratuta. Nik erantzun nion ez zekiela zenbat lan egiten dugun arte eszenikoen sortze-prozesuan. Ez bakarrik dantzari edo antzerkiari dagokienez, baizik eta horiekin bat egiten duten gainontzeko diziplinei dagokienez: musika, argiztapena, eszenografia, jantziak, argazkia, diseinu grafikoa, bideo-edizioa... Partitura koreografikoak dramaturgia osoari ematen dio erantzuna; diskurtsoa bilatzen du, baina ez bakarrik mugimenduan edo testuaren mailan; diskurtso kontzeptualean, etikoan... ere bai. Diskurtso hori sortze-prozesuan taldekide guztion artean sortzen da eta, horretan, alde aurretik egindako mahai-zein landa-lana ezinbestekoa da. Mongek dio horrek eskatzen duen ikerketa-lana izugarria dela. Horregatik, sortze-egintza aldarrikatzen dut ikerketa akademikoarekin pareka daitekeen ikerketa-egintza bezala”.

Koreografoa eta ikertzailea

Natalia Monge Soin Hezkuntzako lizentziaduna da, School for New Dance Development-en graduatua eta EHUko Arte Ederretan doktorea, izan ere, 2014an *La danza de las emociones de Alain Platel* tesia egin ondoren. Gaur egun irakasle ikertzailea da Bilboko Irakasleen Eskolan, Gorputz Adierazpenaren Didaktikaren Saillean. Bere ikerketek emozioen adierazpena dute ardatza, gorputzaren lanketatik abiatuta, bai gorputz adierazpenaren bitartez hezkuntza arloan bai dantzaren bitartez arlo eszenikoan.

Natalia Mongek, zeinak 2014ko Aixe Getxo Arte Eszenikoen Saria irabazi zuen, ORGANIK konpainia sortu zenetik zuzentzen du, 2002tik. Bere sorkuntzan, alde pertsonaletik abiatzen da gaurkotasunaren unibertsora eramateko, mendebaldeko gizarte honetan kezkatzen gaituen giza aldea partekatzeke.

“Goazen itsasora” musika-ikuskizuna

Ostiralean, hilak 19, 18:00etan, Musika Eskolako fonotekan *Goazen itsasora* izeneko ikuskizuna ikusi ahal izango da. Iker Diaz-ek Enrique Fischerrek egindako *El mar* lan musikala moldatu eta euskaratu du. Itsas-abesti eta -kontakizunak dira 3 eta 9 urte bitarteko umeentzat. Sarrera dohainik izango da.

Doako sarrera duen ikuskizuna ozeanoaren uretatik sortzen diren bizitza eta armoniari kantu hunkigarria da, bere sakontasunetan bizi diren izakien eta altxorren erretratua egiten. Kontakizun bakoitza haurren irudimena argitzen duen itsasargia da, bere zabalkuntzan eta sakontasunean, planetaren biziraupenaren alde egiten.



Cloverwindek Neguko Bidaia zikloa inauguratuko du

Larunbat honetan, urtarrilak 20, hasiko da Neguko Bidaia kontzertu didaktiko-musikalen zikloa, aurten hamar urte betetzen dituen; eta Cloverwind talde eusko-irlandarrak eskainiko du lehenengo kontzertua 19:30etik aurrera Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Bertan eskainiko digute sustrai zeltak gure kulturara hurbiltzeko erreperitorioa, folk tradizional irlandarra eta euskalduna nahastuz. Kontzerturako sarreraren prezioa 5 eurokoa da.

Ondarreta ume abesbatza sortu da


Areetako Ondarreta ume abesbatza ahotsen bila dabil ahots zurien taldea handitzeko; jendearen aurrean aurkeztu zen haurren talde berria Gabonetako kontzertuan, Santa Ana parrokiaren iragan abenduan.

Abesbatza zabalik dago 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoentzat, abesbatza gozatu nahi izanez gero, ahots- eta musika-teknika ikasiz, era ludiko, dinamiko eta dibertigarrian. Entseguak Ondarreta abesbatzaren egoitzan izango dira, Romo herri ikastetxean, Gobelaurre kalea 41, oraindik zehaztu gabe dauden egun eta orduetan.

Interesatutako lagunak abesbatzarekin jar daitezke harremanetan 656 79 71 44 telefono zenbakian edo posta elektronikoren bidez: contacto@coralondarreta.com.

Nobedadeak Utopianekin 2018an

Utopian sorkuntzarako gunea eta arte eszenikoen trebatze zentroan bost nobedade izango dira aurten, hala nola *Experiencias Creativas* delako jarduerak; hilean behin egingo dute, larunbat eta igande batean. Urtarrilean, larunbat honetan, hilak 20, egingo da, 19:30ean, *Beethoven y los platos de cuchara* izenburupean. Lehenengo esperientzia denez, sarrera dohainik izango da. Hilaren 28an, igandea, 12:00etan *Zine Mutua* izango da zuzeneko musikarekin, familiarentzat. Bigarren berritasuna da web orrialdea estreinatu duela (<http://www.utopian-getxo.com>); hirugarrena, *Performance Mintegia* da, Begoña Grandek emango duena; laugarrena, txikien urtebetetzeak ospatzeko magia, *Ginkana: Harry Potter* saioa; eta bosgarrena, nagusientzako urtebetetzeak (antzerkia, dantza edo perkusioaz gainera, arratsalde batez Utopianeko gunetan *Cluedo* jolasa egitea ere proposatzen dute. Hilabete bat lehenago egin behar da erreserba). Halaber, hilaren 21 eta 28an mikroteatro izango da (bost antzezlan labur, 18:50etik 21:15era. Sarrera: 4€); eta hileror bezala, Tepsis konpainia etorriko da, *¡Despierta!*, *Retablos de la vergüenza* antzezlanarekin; hilaren 27an antzeztuko dute, 20:00etan (Sarrera: 10€. Deskontua Utopian Txartelarekin).



Identifikatuko dira beharrianak, negozioak sortzeko aukerarekin 3D inprimaketa tailerrak Kirola eta Ongizatearen eremuan

Getxolan-Udaleko Ekonomia Sustapenerako arloak eta Getxo Kirolak-ek, 3DLAN.org elkartearekin lankidetzan, hainbat jardueraz osatutako egitaraua prestatu dute Kirolaren eta Ongizatearen eremuko beharrianak identifikatzeko, konponbideak diseinatzeko eta 3Dn inprimatzeko. Ekimena inaugurazio-jardunaldian aurkeztuko dute, hurrengo astelehenean, urtarrilak 22, 17:00etan, Getxo Elkartearen lokaletan, Areetako Ogoño kaleko 1 zenbakian. Jardunaldietan parte hartuz, helburua izango da 3D inprimatze teknologiak eskaintzen dituen aukerak ezagutzera ematea, eta lankidetzak sareak sortzea

kluben, enpresen, pertsonen eta diseinugile/ makerren artean. Horrela identifikatuko dira beharrianak, negozioak sortzeko aukerarekin, Getxok gizarte eta ongizate alorretako berrikuntza-espazio irekia izaten jarraitzeko apustua eginez.

Metodologia

Egitasmo hau faseka burutuko da, urtarriletik apirilera, astero egingo diren tailerren bitartez, ideiak asmatzeko, diseinatzeko eta fabrikazioko etapak modu irekian lantzeko parte hartzen duten pertsonen arteko elkarlanarekin. Programatutako tailerrak honako

hauei zuzenduta daude: kirol materiala eta ekipamendua fabrikatzen eta banatzen duten enpresak, kirol klubak, kirola modu pertsonal edo amateurrean egiten duten pertsonak, egokitzeko-premiak dauzkaten pertsonak, eta diseinugile / makerrak. Alor tematiko hauek landuko dira: taldeko kirolak (errugbia, futbola, saskibaloia...), urreko kirolak (bela, igeriketa, surfa...), banako kirola (runninga, tenisa, fitnessa, skatea...) eta bizitza egokitua (ezintasunak, adineko pertsonak...). Informazio gehiago eta izen-ematea: www.3dlan.org/getxo-lanlab.

Nordic Walking Itxartu Taldearekin

Urte berriarekin Itxartu Taldeak hila-betearen bigarren larunbatetan Nordic Walking praktikatzeko duen ohitura-ri eutsiko dio berriro *Getxotik ibiltzen makilaz (Ipar martxa) edo makilarik gabe* lelopean. Oraingoan atzeratu egin da jaiengatik eta beste ekitaldi batzuegatik. Hori dela eta, larunbatean, hilak 20, izango da irteera, eguraldi ona egiten badu. Irteera 10:00etan izango da Algortako batzokitik. Pertsona interesatuek izena eman behar dute ostirala baino lehen nw.itxartu@gmail.com helbide elektronikoan. Elkarteak kirol jarduera hau egin ahal izateko makil batzuk ditu uzteko.

Ur-Sorospen ikastaroak

Uribe Aldeako Gurutz Gorriak Ur-Sorospeneko beste ikastaro bat antolatu du Arriluzeko egoitzan, Gobela kiroldegiko igerilekuan eta Ereagako hondartzan. 80 orduko ikastaroa izango da, urtarrilaren 20tik otsailaren 25era bitartean. Klase teorikoak ostiralean, larunbatetan eta igandetan, 15:00etatik 18:00etara izango dira, eta praktikoak larunbatetan eta igandetan, 08:00etatik 13:00etara. Parte hartu ahal izateko 18 urtetik gorakoa izan behar da eta Lehen Laguntzetako ikastaroa gaindituta eta indarrean eduki behar da. Gainera, Gurutz Gorriak beste ikastaro bat antolatu du, Ur gune naturaletan istripuak prebenitzeko, urtarrilaren 29tik otsailaren 15era, 60 orduko iraupenarekin, astelehenean ostegunera, 16:00etatik 21:00etara. Prezioen berri izateko eta informazioa eskatzeko 94 460 92 95 telefono zenbakira jo daiteke (9:00etatik 14:00etara).



I. Txapelketa Sozialak ireki du Itsas Elkartearen 2018ko belaren egutegia

Real Club Marítimo del Abra-Real Sporting Club elkartearen 2018ko estropada egutegia hasi da I. Txapelketa Sozialarekin, *crucero* eta *J 80* monotipoen klaseetako ontzientzat. Txapelketa joan den asteburuan hasi zen eta beste bi jardunaldi izango dira estropadak jokatzeko, klase bakoitzean: *crucero* ontziak urtarrilaren 28an eta otsailaren 10ean arituko dira; eta *J 80*koak urtarrilaren 27an, eta txapelketaren azken egunean, otsailaren 10ean, alegia. Horrez gainera, Marítimoko egutegiaren barruan, aurten ere, honako txapelketa hauek izango dira: Alderantzizko-BBVA

estropada, maiatzeren 1ean; SURNE-Eskarri Sariketa, ekainaren 9an; Espainiako J 80 Kopa, ekainaren 21etik 24ra; Bizkaiko Crucero Txapelketa, ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean; Costa Vasca-Ballena de Oro Saria Estropada, uztailaren erdialdean; Gitana Kopa (belaontzi klasikoak eta antzinakoak), uztailaren 20tik 22ra; Castro Kopa, irailaren 8an eta 9an; eta Regata del Gallo izenekoa, abenduaren 15ean, besteak beste. Horiekin batera egingo dira El Gaitero estropadaren irteera, Getxo Kopa eta elkarte getxotarraren beste gizarte txapelketa batzuk ere.



Bárbara Pla eta Uribarri Barrutieta, Australiako Txapelketarako hautatuak

Bárbara Pla eta Uribarri Barrutieta Getxo Errugbiko jokalariek Munduko Serieen barruan dagoen Australiako Txapelketa prestatzeko Pedro de Matías hautatzaileak egindako zerrendan sartuta daude. Munduko Zirkuituko bigarren txapelketa da. Txapelketa urtarrilaren 26an hasiko da eta hilaren 8az geroztik Madrilan egiten ari den kontzentrazioan dira talde getxotarreko bi jokalariek, Australiara joan aurretik. Guztira, 19 jokalariek dira deialdia osatzen dutenak, eta beste sei gonbidatu dituzte kontzentrazioan parte hartu eta entrenatzeko.

Espainiak A multzoan jokatu du Australiako Txapelketan, eta talde horretan izango dira etxeko taldea, Australia, Dubain jokatu duen Munduko Serietako lehen Txapelketako irabazlea, Frantzia eta txapelketa honetara gonbidatutako selekzioa, Papua Ginea Berria ere. Aurreneko partida Australiaren aurka jokatu du Espainiak, urtarrilaren 26an, 12:50ean, hemengo orduan. Bigarren norgehiagoka Frantziaren aurka izango da, 15:12an, egun berean; eta jardunaldia amaitzeko Papua Ginea Berriaren kontra jokatu du, 17:45ean.